


IRATXE ORMATZA/ PRINTZAK BEGIETAN



BIOGRAFIA

https://eu.wikipedia.org/wiki/Iratxe_Ormatza

Iratxe Ormatza bakiotar idazle eta itzultzailea dugu. Ingalaterran **soziologia** ikasketak landu zituen York Unibertsitatean, eta Kent-ekoan graduondokoa. Gerora, soziologiari lotutako lanak alde batera utzi, eta testuen **itzulpegintzan** abiatu zen, itzulpengintza masterra burutzearekin batera.

BERRIAK:

[Iratxe Ormatza Printzak begietan liburuaz Arratsean Euskadi Irratian](#)

Eskertza zerrenda luzea. Un drama en Bilbao (Euskadiko filmategia) 3. ipuina, egiazkoa. Nievesen aitak dirua jarri zuen filma egiteko.

Azaleko argazkia: Bilboko Museoak eskeinitakoa. Eskerreko andrearen alaba etorri zen aurkezpen batera: Bere asmoa izan zen Atxuri eskolako zuzendaria. Emakumeen botoen aldeko borrokan ere, 25 pezetaren truke gizonak kartzelatik atera zuen. Eskumako emakumearen aita Berrizgo alkatea izan zen.

Hamarkada bakoitzeko ipuin bat. Izenburua, urtea, urte sasoia. iraganeko printzak, lantokia, arte ingurua, idazle den Grazi, emakume iraultzaileak, etsipenez makurtuak, politikaren mendekua larruz ordaindutakoak, bizpahiru gai kontakizun bakoitzean (zuribeltzezko dokumental bati begira geundeke?)

Nola antolatu zenuen lana? kronologikoki? Ez, saltoka. lehena 1914. Non dagoz sortzaileak eta haien sorkuntza lana? Lesbianak non egon dira, zer egin dabe? Errepublika garaia ezagututako andrak, nola egokitu ziren diktadurapean.

Ez daude emakume biktimistak zure ipuinetan, bizi indarra dute, emakumeen indarrean sinisten dut. Pantxika gorputza errentan jartzen duena 1905eko erretratu oso bat da(San Frantzisko kaletik gora, orain Miribilla dena) Filomena lagunari 14 urteko apopiloari istripua gertatzen zaio.

Bizitza itxaropen txikia zuten. San Frantzisko kalean bizi da Iratxe eta era horretako egoera gogorrak ikusten ditu gaur egun ere.

Emakume margolariarena: Ismael Manterolaren hegoak ebaki banizkio idazlanean ez dira emakumeak agertzen margolari gisa, Martina bezala.

1924ko prota: Adela, familia onekoa, pelikula bat grabatu dute Bilbon... emakumeak maite ditu.

Beti egon dira lesbianak. 1986ko Terese, medikuntza ikasten ari dena, parez pare jarritz gero, curiosoa da ez zaiola pasatu lesbiana izan zitekeenik.

30eko hamarkadan langilegoa aztoratuta dabil, Gabriela, botoa lortu dutenean eskumak aurrera egin omen du haiei esker. Oso elizkoiak zirelako?

Eliza apenas aipatzen da 50eko hamarkada arte. Nahita egin du pisu larregi izango lukeelako bestela. ezin duzu kultura, hizkuntza, harremanak jaso.

40ko hamarkadaren gosea, Otilia, humiliazio mota guztiak pasatu beharko ditu. **Bortxaketak, zergatik ez dira transmititu?** Ba oso gogorra delako hori kontatzea zure semealabei. Zelan azaldu min hori?

1963ko Grazi Zubiri idazlea da, Ipuin bat idatzi du gizonak eskatuta, baina duda askorekin. Zalantza horiek beti eman dira, orain ere. Kosmek idatzi egiten du , zalantzak izan gabe. Emakumeak ordea dena zalantza. Noiz idatzi beti ere zaintzan egon behar zarelako, ez dago tarterik.

Egoera garaiari lotuta dago? baina gaur egun ere gertatzen zaie emakumeei. Migrante guztiena, adibidez.

Sortzaile asko daude, edo sortzaile izan nahi dutenak.

Julene Azpeitiaren ipuinak irakurtzen ditu Otilia protagonistak. Gure historiaren hari bat falta zaigu jarraipen bat egiteko.

Zazpi urte pasatu ditu ipuinekin, gura izan du ezin izan dabela aurrera egin protagonistek hainbat kontutan, heuren ametsak betetzeko. Ez dut jarri nahi izan andra bat beste guztien gainetik jarri. Ipuinetako bukaeran atea ez dago itxita jakiteko gerora lortuko duten edo ez bere ametsak.

Dana eta denetara ailegatu behar hori ez da ona osasun mentalerako.

Zergatik sasoiak aipatzearena? Urtaroak, berez, asko markatzen dutelako. 10etik 5 udaberri direlako. Ezin neban hain inguru latzean jarri andrak.

Dena ez doa hobera. Garai txarrak beharbada ez ziren hain txarrak. Bigarren mailako protak daude ipuin guztietan. Beti irudikatu dut lagun bat protaren ondoan (nire lagunak) andreen arteko laguntasun hori. 1905eko Filomena emakume indartsu hori. 1934ko Gabrielaren ama, Florentzi, 1986ko Ane.

Nolako irakurlea nahiko zenuke? danak, era guztietakoak. Norbera gai balitz bere aurrekoei galdetzeko, ederra litzateke.

Bilboko emakumeak protagonista dituen unibertsoa | El Diario Vasco

Iturri modura Iñigo Aranbarrik idatzitako 'Gure mendea' liburua, ('Argia'-ren 'Gure mendea' liburua irakurtzea izan zen. Bertan efemerideak aipatzen dira, Euskal Herriko ikuspuntutik.) Egunkariaren hemerotea, amaren etxeko liburuak eta Bilboko Udal Liburutegia nabarmendu ditu. Lehenean efemerideak izan dira giltzarri, gero horietatik sakontzea errazagoa izan baita edo bestelako autoreak topatzea. Aldiz, garaiko jantziak, janak, pelikulak eta bestelakoak interneten ere bilatu dituela. Hala ere, irakurketari begira, ipuin guztiak bata bestearekiko independenteak direla argitu du Ormatzak ez dagoela zertan irakurri hurrenkera kronologikoan.

KRITIKAK: Ez dago

AZPIMARRAK:

Bien bitartean gauza batzuk ez dira horrenbeste aldatu: pobreen zapalkuntza, euskararen gutxiespena, emakumeen azpiratzea ... XX. mendeko hamarkada bakoitzari istorio bat sortu dio Iratxe Ormatzak, eta ipuin bakoitzean emakume baten bizipenak kontatu. Hamar emakume Bilboko kaleetan zehar.

Mea eta laztanak

Gura izan neutsan lagundu, arpegi kolorga harek erakusten eban gorputza makal eukala. Erreka inguruan ere neska eta andre franko dago diruaren truke **gorputza errentan jartzen**. Larrutan egitea bizibidetzat dutelako udaleko zerrendetan ageri direnak ez dira horrenbeste. Eliodoro eta Valentin, senarra.Ez du batere asmorik bata edo bestea uzteko. **Bizitza bakarra dago, eta gozatzeko ez bada, zertarako?** Etxetik kanpo lan egitea zikina dela, lohitu egiten dituela andreak ...Nork eta langileen alde egin behar dutenek, **sindikatuok**. **Zakila jateko** eskatu dio, ordainduko diola. **Pantxikak** gizonari erantzun dio nahi badu eskuz egingo diola. **Pantxikaren amak beti izan zuen kemena eta indarra**. Meategian, gizonen pare, sari erdiaren truke ibili zen; eta kaian, zirgari, benakera eta zamaketari .

Pintzelen eta biolinaren geriza

Luzaro egon dira Aurelio Arteta pintorearen Pórtico izenekoari begira. Ama kantuan hasten da pianoan; Martina ere kantari hasten da, edota flauta jotzen; ahizpak biolina hartzen.Inork baino hobeto jo du. **Sariak** berarentzat izan behar luke, ezbai barik baina beste bati eman diote. **Koadro** guztiak ikusi dodaz, eta zurea onena. **Lehen saria merezi** dozu. Erostera nago . Gurasoek damu izan dute, harik eta hil diren arte: euren alabei ez erakutsi izana adoretuagoak izaten, euren buruan gehiago sinesten. **Martinak eta Justinak ez dute inoiz berba egin lehenagoko ametsen gainean**, ezta lehiaketan gainean ere. Mina gorputz barrutik aterako balute, jasanezina egingo litzaieke. **Min sakon goibel hura izan dute bidelagun bizi artean** .

Bilbon, drama barik 1924ko udaberria

Aita ikusi zuen etxe hartatik irteten, ezagutzen ez zuen andre harekin. Andreari txeraz egiten zion berba , gainera ; Hurrengo asteetan ez zuen **Adelak** beste zereginik, aitari jarraitzea baino. **zinemaren xarman du Adelak gogoa**: antzezlanen, liburuen, pinturen, musikaren antzera, beste bizi bat sortzeko ahalmena . Oinez doala, gomuta bat nagusitu zaio: **neska bat laztantzeko gogoa** izan zuen lehenengo aldia . Katuen zerua baino gozoagoa egin zitzaion haren bularraldea. Neskame berria ere hartu dute, **Benantzi**: begi argi handiak, ezpain ederrak, irribarretsua eta lotsorra aldi berean. Lehen **Euzkeldun orratza** eramaten zuten paparrean, jakin zezaten euskaraz egiten zutela, eta euskaraz egin ziezaiten. Orain debekua da dena. Bai, aita, kalean ikusi zaituet. Alkarregaz, txeraz berbetan – dardarari eutsiz. Isilik gordeko dot, zera, ba, etxe bat, **etxe bat emoten badeustazu** dohaintzan , niretzat , bertan bakarrik bizi nadin.

Nievesek esan deust barriro pelikula bat egingo dabela. **Nievesen aita zuzendaria izango dala , eta Nieves protagonista.** Urtea bete da Benantzi Adelarekin joan zenetik. Bide luzea egin dute harrezkero .

Metxaren luzera 1934ko uda

Gabrielak ikasi du **iraultzarekin** lotutako gai inportanteek **gaztelaniaz** behar dituztela berbak . Iraultzarekin, zapatu ingelesa ezarri beharko da, eta aurrerago bost laneguneko astea.

Andreek daukie errua. Botoa emoteko eskubidea euki, eta eskumari emon botoa. Elizgizonak eta haien beldur diren andreak aipatzen dituzte.

Leonidak erabaki du neska biek zerbait praktikoa ere ikasi behar dutela: **lehergaiak** egiten pizten, lehertzen.

Gabrielari iruditzen zaio aukeratu egin behar duela: **aitaren ikuspuntu ezkertiarra edo amaren ikusmolde nazionalista.**

Sasien artean dituzte lehergailua, metxa eta mistoak.

La revolución ha muerto, frente a ella se ha alzado vigoroso el alma de España, precisamente **el día de la raza** ” Harriaren gainean itzartu da **Gabriela, mailatuta gorputza, ubelduta , hankartea minez** .40 pertsona hil dituzte, 900 atxilotutik gora . Larrinagan ezin dute bat gehiago sartu.

Galdames bonbardatu dutela

Gosearen hotza 1943ko udazkena

Horrexetatik ateratzen du indarra jaiki eta txabolatik irteteko.– **Aquí viene la maestrilla que tanto iba a enseñar**, y ahora lo único que puede enseñar es su culo y la vergüenza de no poder alimentar a sus hijos Jose Manuelek barrena hautsi zion, zakila zulo guztietatik sartuta.Zigor hori jarri zioten.

Komunak garbitzea, txakur handi bat ere jaso barik. Eskolan, **espainol osoak** izaten ikasi behar dute

Sargoria 1956ko uda

Aitortu behar dio bere buruari Sección Femeninaren eta Acción Católicaren begiak sartu zaizkiola.

Abelinek nahiago du Daliak etxean irabaztea dirua: arropak josten, garbitzen, lisatzen. Inoiz diru hori Abelinen soldatakoa beste izan bada ere. Lanpostu hobe bat gura badu, zerbitzu soziala eta **Guardia Zibilaren eta abadearen “ certificado de buena conducta ”** eduki behar du .

Lainoen gain-azpia 1963ko udaberria

Kosme hasita zegoen **argitaratzen**, **Graziri** ere lanen bat argitaratua zioten ordurako. Batzar hartara deitu zieten aztertzeko ea biderik zegoen euskarazko aldizkari bat sortzeko.– **Liburuak** bakarrik ez.

Ikastola bat sortzeko be bagabilz. Zaila egiten zaio bere burua umeen aurretik, senarraren aurretik jartzea. **Zeren idaztea horixe ere bada, bere burua lehenestea.**

Eta ez dute argitaratuko.

Kalera 1976ko negua

Gurasoen etxea ere isilik egongo dela pentsatu du, aita ezkaratzean, irratia piztu ez piztu. – Gogorra izan da **Gasteizekoa**, e ! – esan du Txarok. – Bai, gero ! Deungeak eta txarriak, besterik ez dira. 300 lagunetik gora zeudela han, komisarietan ez zutelako, antza, leku gehiagorik. Botaka gogoa izan zuen, negar egiteko, baina arnasarik ere ez.

Zelan laguntzen zaio torturatu dutenari ? Gizonari ? Senarrari ?

Halako batean, bikote bat agertokira igo, eta **ikurrina** zabaldu du. Jendearen irrintziak, txistuak eta “ Gora Euskadi Askatuta ”.

Ezkontzaz geroztik 1986ko udaberria

Pentsatu du hurrengoan bera **ezkonduko** dela beharbada. Josuk eta biek ez dute horri buruz hitz egin oraindik. Pisu batera joan, lan egin, umeak izan. **Aitak, gainera, bidea marraztu dio** datozen urteetarako: lagunak ditu ospitalean, eta hantxe egingo du espezialitatea. Andrearen **titiak** hasi da ukitzen blusarekin gainetik, haren titi beteak. Andreak botoiak askatu dizkio. Obsesioak hartuta dabil, eta neskak baino ez ditu ikusmiran, neskak eta andreak. Gustuko ditu ? Ez ? Bai ? Ezin ditu burutik kendu. Josu galdu du. Badaki galdu ez duela galdu, baina ez du Bilbon izango, eta urte bi luzeak dira.

Ahaleginaren saria 1998ko udaberria

Ez duela antxoarik nahi hasi da umea. Baietz, jan egin behar duela. Lagunak ikusteko denbora gutxiegi dauka, edo nekatuegi egoten da. Anderri esango ote dion pentsatu du; Igorrekin zebilen tarteka, Anderrekin lehenengo aldiz oheratu zenean. Euskaltegian argi daukate denek **kontuen blokeoak** ez daukala ez bururik ez belarririk, AEKren inguruan sortu den oihartzunak gaiztotik gehiegi duela.

GALDERAK IDAZLEARI

1. AURKEZPENA, ONGI ETORRIA

2. AURREKARIAK

2007an argitaratu zuen HEGOAK liburua: Hego Ameriketara nebarekin eta bakarrik egindako bidaiaren KRONIKA, bizkaieraz idatzia. **(Euskalkien eta batuaren arteko harreman nola ikusten duzu? Eneko Bidegainen gaur bertan plazaratu duen BICHTA EDERren inguruko atal bat euskalkiei dagokienez: Ez dugu sekula erraiten, batua da baina gipuzkeraz idatzia da.**

Ulertzen?

Garaipen bat?

Bai. Nik uste dut jendeak irakurri duela eta ulertu du ulertzen dela. Hori da helburua eta horretarako behar gara. Bestela, iparraldeko batek idazten duen guztiz hegoaldekoek azpimarratu behar badute: "Bai, baina iparraldeko hitzak badira". Bai, bistan da. Eta bizkaitar batek idazten baldin badu Bizkaiko hitzak badira. Nik berriki irakurri dut Oihane Amantegi. Bizkaitarra da. Eta bai. Baina nik ez dut erranen: batua da baina bizkaieraz idatzia da. Identifikatzen duzu. Ez baldin baduzu ulertzen eta nahi baldin baduzu hiztegian begiratu, begiratzen duzu eta bestenaz segitzen duzu aitzina. GALDERA HAU BUKAERARAKO, DENBORARIK BALEGO.(itzultzailea den neurrian ere , agian interesgarria)

Harrezkero, **Idatz&Mintz** literatura-aldizkarian ipuinak plazaratu dizkiote. Zure ipuin hauetan ba al dago hariren bat edo batzuk gai batzuren inguruan errepikatzen direnak? **PRINTZAK BEGIETAN** eko aurrekaririk ba al dago?

KRITIKARIK EZ dut topatu. Zerbaiteren seinale izan daiteke, ala kritikak bakarrik jende ezagunarentzat dira?

3. ARRATSEAN EUSKADI IRRATIAN ateratako galdera moldatuak.

Azaleko argazkia: Bilboko Museoak eskeinitakoa. Emkume irrifarretsuak. Irudi horrekin geratzea al da helburua liburua irakurri ondoren?

Eskertzak: *Iturri modura Iñigo Aranbarrik idatzitako 'Gure mendea' liburua, Bertan efemerideak aipatzen dira, Euskal Herriko ikuspuntutik. Hau izan al zen ituri nagusia?*

Hamarkada bakoitzeko ipuin bat. Izenburua, urtea, urte sasoi. Ez al da erronka handiegia mende bat 10 hamarkadetan, hamar ipuinetan laburtu nahi izana?

Nola antolatu zenuen lana? kronologikoki? Hala ematen du ikusita ipuin bakoitzean urtea eta urtaroak agertzen direnez. Hastapenetatik horrela izan al zen ala gerora uztartu zenituen?

Urtaroei garrantzi berezia eman nahi izan diezu, udaberriari bereziki?

Ez daude emakume biktimistak zure ipuinetan, bizi indarra dute. Ez diezu emakume horiei etsipenarako aukerarik eman. Tokatu zaien errealitatea jaso eta aurrera egiten dutenak aukeratu dituzu. Zergatik ez diozu leku gehiago eman etsipenari?

Lesbianen gaia ere ikutzen duzu oso modu naturalean, ustez beste arazo garrantzitsuagoak egon zitezkeen garaietan.

30eko hamarkadan langilegoa aztoratuta dabil, Gabriela, botoa lortu dutenean eskumak aurrera egin omen du haiei esker. Oso elizkoiak zirelako? Emakumeek, noski, beti dute plus bat gainditu beharra, gizarte patriarkalean aurrera egiteko.

Gerraren bortxak (ekonomikoak, sexualak, gizartearenak, ideologiarenak) agertzen dira baina transmisioan, denok ezagutzen dugun moduan, sarritan eskutatzen dira, jasotako zigorrerengatik eta lotsagatik. Horrek aurrera egitea galarazten digute ala hobe da horrela traumak ez dezaten luzaro iraun?

Bigarren mailako protagonisten garrantzia: Pantxikaren ama Meategian, gizonen pare, sari erdiaren truke ibili zen; eta kaian, zirgari, benakera eta zamaketari. **Sindikatu**ei ez zitzaizkien ondo iruditzen.

Emakume sortzaileak aukeratu dituzu, eta sortze lanak askotan moztuta geratuta zaizkie. Batzuei gerora bete daitezen atea ez dago itxita ordea.

ELIZA ez da aipatzen ia, nahiz eta sekulako garrantzia izan zuen

4. GAIAK

MEA ETA LAZTANAK: **gorputza errentan**. Bizitza bakarra dago, eta gozatzeko ez bada, zertarako? Etxetik kanpo lan egitea zikina dela, lohitu egiten dituela andreak ... Nork eta langileen alde egin behar dutenek, **sindikatuok**.

Pintzelen eta biolinaren geriza: Martinak eta Justinak ez dute inoiz berba egin lehenagoko **ametsen gainean**, ezta lehiaketen gainean ere (bete gabeko ametsak). Mina gorputz barrutik aterako balute, jasanezina egingo litzaieke. **Min sakon goibel hura** izan dute bidelagun bizi artean.

Bilbon, drama barik 1924ko udaberria: Aita ikusi zuen etxe hartatik irteten, ezagutzen ez zuen andre harekin. Benantzirekin bizitzera. **Infidelitatea, lesbiana**. Nievesen aita zuzendaria izango dala, eta Nieves protagonistea. **Sortzaileak**

Metxaren luzera 1934ko uda:

Gabrielak ikasi du iraultzarekin lotutako gai inportanteek **gatzelaniaz** behar dituztela berbak .

HIZKUNTZA

Andreak daukie errua. **Botoa emoteko eskubidea** euki, eta eskumari emon botoa. **Elizgizonak** eta haien beldur diren andreak aipatzen dituzte. **Leonidak** erabaki du neska biek zerbait praktikoa ere ikasi behar dutela: **lehergaia** egiten **pizten**, lehertzen. La revolución ha muerto, viva España.

Gosearen hotza 1943ko udazkena: Aquí viene la maestrilla que tanto iba a enseñar.

HUMILIAZIOA.

Sargoria 1956ko uda: Guardia Zibilaren eta abadearen “ certificado de buena conducta ”

Lainoen gain-azpia 1963ko udaberria: Zeren idaztea horixe ere bada, **bere burua, Graxirena, lehenestea. AUTOESTIMUA NON?**

Kalera 1976ko negua: Gogorra izan da **Gasteizekoa**, e ! – esan du Txarok. Zelan laguntzen zaio **torturatu dutenari** ? Gizonari ? Senarrari ?

Ezkontzaz geroztik 1986ko udaberria: Aitak, gainera, bidea marraztu dio datozen urteetarako: lagunak ditu ospitalean, eta hantxe egingo du espezialitatea. Andrearen **titiak** hasi da ukitzen blusarekin gainetik, haren titi beteak. **LESBIANA**

Ahaleginaren saria 1998ko udaberria: Euskaltegian argi daukate denek **kontuen blokeoak** ez daukala ez bururik ez belarririk, **AEK**ren inguruan sortu den oihartzunak gaiztotik gehiegi duela.